



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BANDOA

EHNE, baseritarren sindikatuak, traktoreek IAT (ITV) pasatzeko duten zailtasuna ikusita, Eusko Jaurlaritzako Industria Departamentuak eman dien irtenbidearen berri eman digu.

Ikusirik, Urnieta eta Irungo ITV enpresak, traktoreei IAT pasatzeko eskaintzen zuten zerbitzua jada ez dutela ematen, unitate mugikor homologaturik ez dutelako, **Maiatzaren 8an eta Maiatzaren 29an, Ezkio-Itsason** traktoreei IAT pasatzeko aukera eskaini dute.

Horretarako, ordea, udalerrri bakoitzean IATa zenbat traktorek pasa behar duten zerrendatu (noiz iraungitzen den traktore horren IATa, matrikula, jabearen izen abizenak eta harremanetarako telefono zenbaki bat) behar dute eta aipatu Jaurlaritzako sailera bideratu. Zerrendatzen duten traktore kopuruaren baitan egongo da egun gehiago jarri behar izatea IAT pasa ahal izateko.

Gerta daiteke dagoeneko IAT iraungita duten traktoreak egotea udalerrian eta Ezkio Itsasoraino joateko neurri bereziak hartu behar izatea edo bestelako neurri batzuk hartzeko eskaera egin beharra.

Beraz, zerbitzu honetaz interesaturik baldin bazaude, mesedez, etorri edo deitu Udaletxera, eskatzen dizkiguten datuak emateko.

Besterik gabe, agurtzen naiz.

Larraulen, 2020ko martxoaren 10ean.

Alkateak

